

LINO AKESOLO

Irakurle aseezina, ikertzaile sakona, hiztezigile zorrotza

Arratsalde on ekitaldi honetara etorri zarien guztioi. Euskaltzaindiak, Aita Lino Akesolori buruzko lan hau ekitaldi honetarako eskatu eustanean, pozik eta gogotsu hartu neban gonbitea, hainbat urte alkarrekin bizi izan ginan eta.

Halan da bere, hemen Diman banatutako orriak, nik esan beharreko gauzarik gehienak labur esanda dituela iruditu jatan. Horrela, horri hori makulutzat hartu eta bertan aitatu baino egiten ez diren puntu batzuk sakontzeari ekingo deusot. Hortik dator, nik neure gaurko jardun honen izenburutzat *Lino Akesolo Irakurle aseezina, ikertzaile sakona eta hiztezigile zorrotza* hartzea.

I. Irakurle aseezina.

Jendea irakurtzera bultzatzeko kanpainak eta egiten diren garai honetan, ez datorkigu txarto Lino Akesolok izandako irakurzaletasun handia gogoratzea. Ekarri bere, ezin dot bere irudia gogora ekarri esku artean edo besapean liburu edo aldizkari barik. Edozein tokitan eta unetan irakurtzen!

Konbentutik kanpokoak bere konturatu ziran horretaz. Horrela gogoratzen deusku Igone Etxebarria andreak aitatu dodan orrian: *‘irakurle sutsua izan da, beti libururen bat besapean hartuta. Liburutegi eta liburu-dendetan sagua lez ibiltekoa zan, jakinguraz beteta’*.

Jakingura aseezin hori izan zan, izan bere, bizitza osoan zehar barru-barrutik jakituria bila bultzatzen eban ezten zorrotza. Entzuna neutsonez, txiki-txikitatik jaso eban irakurtzeko zaletasun hori etxean bertan, familian izan eban abade bati esker. Eskolara joan aurretik ikasi ei eban irakurtzen. Beti prest izaten zan eskuratzen eban edozer irakurtzeko.

Bizitza osoan bide horretatik jokatu eban, eta hortik lortu eban halako jakintza maila zabala. Hurrengo lerroetan aitatu dogun lan zabala egin ahal izateko derrigorrez asko irakurri behar, zer esanik ez, hor eta hemen datuak batu, barruan egosi eta, gero, laba goritik atera berri dan opil gozoaren antzera euskaraz eskaintzeko.

II. Ikertzaile sakona:

Lehen aitatu dodan orrian, honako beste hau bere ageri jaku: *“Lino Akesolok asko eta asko idatzi dau, baina batez ere artikulua. Horregaitik, bere lana batean eta bestean zabaldua dago. Karmengo Argia, Karmengo Egutegia, Karmel, Zeruko Argia, Zer, Euskera, Olerki, Egan, RIEV eta beste hainbat aldizkaritan argitaratu ditu. Euskara eta euskal kulturaren adar guztiak erabili ditu Lino Akesolok bere idazlanetan, beti zorrotz eta artez”* eta honela amaitzen dau: *“Euskal idazle zaharrak ondo aztertuta daukaz, mugaz bestaldekok zein hemengoak”*.

Julen Urkizak hor-hemen batu, eta KARMEL SORTAn argitaratutako *Idazlan Guztiak* hiru liburuetan argi ageri da zein zabala izan zan Aita Linok jorrotutako ikerketa-arloa. Julen Urkizak lan guztiak ispilu batean modura jarri euskuzan aurrez aurre sarreran aurkibide eder bat eskainiz. Honako multzoak egiten ditu:

1. *Euskara, euskal gramatika, euskal gaiei buruzkoak*: 62 idazlan.
2. *Euskal idazleei buruzko lanak* (mendez mende aurkeztuta): 95 idazlan.
- 3.- *Kondaira eta biografia-artikuluak nahiz oharrak*: 72 idazlan.
- 4.- *Liburuen barri-emotea*: beste 43 idazlan.

5.- *Itzulpenak*. Era guztietako itzulpenak ditu: hitz-laez eginak eta olerkiak. Asko dira izenik jarri gabe ikastoletarako eta eginak bere. Itaundu Begoñazpiko ikastolakoei!. Ezaguna da Aita Santi Onaindiarekin argitaratutako *On-bidea* (Avilako Teresaren *Camino de perfección*). Itzulpen-lan ugari hori zala eta egin eutsoen omenaldia Aita Santi Onaindia, Jaime Kerexeta eta abarrekin batera itzultzaileen alkarteak. Azkeneko itzulpena, *Jon Gurutzeko* santuaren testu hautatuak izan zan, heriotza baino lehentxoago egina.

Ikerketa-lan zabal hori biblioteka eta artxiboetan eten barik lan egin ostean egina dogu. Horri esker, gaur egungo ikertzaileek Akesoloren lanetatik edan behar izaten dabe ur garbia. Izugarritzko mesedea ekarri deutso, bada, euskarari Aita Lino halako lan neketsuetan jarduteak.

Euskal gaien eta kondaira eta biografia-artikuluaren artean honakoak: *Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste; Aditz-izena Lope idazlearen liburuan; Euskerea antxiñako Yesuiten eskoketan; Arabako euskal abestiak direala-ta; Bizkaiko Forua, Gernikako Batzarrak eta Euskerea; Bertsolaritza Fernando Amezketarraren garaian, Euskara batuaren billa, Karmel aldizkariaren historia, Nafarroa eta Trebiño (Antxiñako eretxi bi), Zirilo Arzubiaga 'Jaungoiko-zale' eta 'Ekin'-en biotz izan zana, Gure Xabier doneari Parisen txalo, L'Abbé Pierre, Europa seaskaz ustuten, Katalina Erauso, monja alferez donostiarra, Aita Donostiaren omenez, burdiñezko zomorrodun gizona, Inkatarren aginte-erria...*

Aztertu zituen euskal idazle askoren artean hona hemen ezagunenak: *Etxepare, Joannes Leizarraga, Beltran de Etxauz; Juan Tartas, Harizmendi, Vinson eta abar; Bernard Gasteluzar; Joanes Etxeberri Ziberutarra; Pedro Ignacio de Barrutia, Aita Kardaberas, Mogel euskal idazle markinarrak (Joan Antonio, Juan Jose eta Bizenta Antonia), Asterloa, Frai Bartolome Santa Teresa, karmeldarra, Jose Pablo de Ulibarri Gamindez; Aita Joan Mateo Zabala; Indalezio Bizkarrondo "Bilitx", Arrese Beitia; Arana Goiri; Lizardi, Lauaxeta, Resurrección M^a Azkue, Aita Damaso Intza, Nikolas Ormaetxea (Orixe), Pierres Lafite, Iratzeder, Oihenart, Manuel Lekuona, Eusebio Erkiaga, Aita Mokoroa, Aita Donostia, Domingo Agirre, Fermin Irigarai, Diasporako euskal idazleak, Enbetia 'Urretxindorra', Xalbador, Matxin, Jon Oñatibia, Zipritia andere-marizalea, Aingeru Irigarai, Txirrita eta beste zenbait bertsolari; Iparragirre eta Gernikako Arbola, Diasporako euskal idazleak, Euskal idazleen sorta berria... Katea luzea dogu Linok esku artean erabili eta uherra kenduta gure esku jarritakoa.*

Liburuen barri emoteko: *Elorri; Shakespeare euskaraz. Bizkaiko seme baten lana; Bergili-ren idazlanak osorik; Euskal-Aditza. Bizkaiera. Egillea: Pedro Pujana; Kondaira eta biografia-artikuluak nahiz oharrak; Oienart: Atsotitsak eta Neurtitzak (Edizio berria); Bizkaiko lege zarrak, liburu berri bat; Joxe Miguel Barandiaran nor dogun. (Liburu barria); "Jaunaren Deia, euskal teologoaren aldizkaria, Bizkaiko lege zarrak liburu berri bat, Zabalegi, nekari-eskola..."*

Aparteko aipamenak. Bidezkoa eta zuzena da nork berea maitatzea eta zaintzen arduratzea. Lino Akesolok ardura handiz hartu eban, batetik Dima inguruko idazle eta pertsona ezagunen barri emotea. Bestetik, karmeldarren artean euskara-arloan lan egindakoak gogoratzea:

a) **Dimako semeak:** Dimako lau semeren barriak batu eta eskaintzen deuskuz. Honakoak dira:

- **Pedro de Madariaga, kaligrafo, euskalzale, gramatikariari.** Bere auzokoa (Obakoa) zan gizon horri bi lan luze eskaini eutsozan, beraren jatorria Oa izan zala argituz. Honi buruz oso datu interesgarriak eskaini euskuzan.

- **Ilario Soloeta.** Dimako Baltzolan jaioa zan abade honi maitasunez eta begirunez beteriko beste bi idazlan eskaini eutsozan. Abade-lanetan, Igorren urteetan lan ederrak egin zituen gizon hau asko maite ebala ageri da eskainitako lanetan.
 - **Agustin Atutxa Bikarregi karmeldar olerkaria.** Dimako Emaldiko semea zan karmeldar hau gogoz gogoratzen dau. *Eltzegor, Emaldi* eta *Urlo* ezizenak erabili zituen. *Mugarra* olerki liburua idatzi ebana dogu. Euskal idazle oso ona zettorrela dinosku. Ameriketara joan eta bertan bizi beharra izan ez baleu lan askoz bere handiagoga egingo ei eban euskararen alde.
 - **Domingo Iturrate Zubero, hirukoiztarra.** Dimako zoriondun gazte honi ere lan bat baino gehiago eskaini eutsozan. Halako batean beraren bidez Dimaren izena mundu zabalera zabaldu dala dino: “*egun areitan Dimako erria, eta euskaldunen izena goi ebizen Erroman, Domingo Iturrate Zoriondun berria zala eta*”.
- b) **Azken mendeko karmeldarrak.** Lehenago aitatu dodan Frai Bartolome ospetsuaz gainera, beste hainbat euskal idazle karmeldar aztertu zituan: Ametzaga'tar Bingen, Aita Narziso, Aita Ipolito Larrakoetxea (Arratiako euskaraz ‘*Grim anaien ipuinak*’ euskaratu zituena), Aita Lon Arteaga, aitaturako Aita Agustin Atutxa, aita Jose Domingo Ugartetxea musikari ospetsua, aita Nikolas Batiz “Xalokin’ olerkaria, eta abar.

3. Hizteggile zehatza: aurreko lerroetan aitaturako ikerketa ugarietz gainera, Aita Linok urteetan zehar euskararen alde egindako lanik handiena hizteggintzan egindakoa dogu. Luis Arostegi, olerkari, itzultzaile eta idazleak Linoren *Idazlan Guztiak* liburuari egindako sarrera luzean honako hau dinosku: “*1975ean, eta Retana jaunaren eskariz be bai, Begoñara bialtzen dau karmeldarren Probintziko Nagusiak, ‘Diccionario de Autoridades’ liburuan urragotik lan egin eikean, eta komentu atako liburutegiko, batez be euskal liburutegiko, arduradun*”. Eta geroago beste honako berba argigarriok: “*Iztegi onetan idazle zarrak, aurreko iztegiak, gaurko idazkiak eta erriari entzundakoak jaso dira, itz bakotxa eta bere adierazpenak jasotako esaldian edo adibidean kokatuz. Baiña hirurogei urte inguru danetariko idazkiak arakatzen ibili dan gizon onek oindiño erriaren iztegiaren ikerketa zeatza osotu bear dala deritxo*”.

“*Diccionario Retana de Autoridades del Euskara*” hiztegia Manuel de la Sotak urteetan zehar batutako fitxak, Pierre Lafitteen eskutik Lino Akesolorengana etorri eta honek goitik behera orraztuz prestatua izan zen. Linok ardura handia jarri eban fitxetan aitutzen ziran jatorriko iturrietara jo, testuak egiaztatu, eta egin beharreko orrazketak egiten.

Hiztegi horrek, baina, Lino Akesoloren zoritxarrerako ez eban izan itxaroten zan besteko ageriko zabalkunderik. Batetik Retanaren izenean agertzeak identifikazio-zailtasunak eukazalako. Bestetik, *Orotariko Euskal Hiztegia* argitaratzean, hiztegi hori hainbatean bertan jaso edo barru sartua izan dalako.

Hiztegi honen eragina. Azken urteotan, hainbatean interes konkretuek bultzatuta, gutxietsi edo egin da hiztegi horren balioa. Halan da bere, esan beharra dago, argitaratu zanetik *Orotariko Euskal Hiztegia* osorik kaleratu eta digitalizatuta eskainia izan arte, eragin handia izan ebala. Laurogeiko hamarkadetan eginak ditugu gaur merkatuan jendearen esku dabilozan hiztegi zabalduenak. Eta horretarako beharrezkoa izan eben Linoren hiztegi hori, ez egoalako lanerako horrelako beste iturri zabalik, hiztegi ziuurrik. Hiztegi guzti horreek, material hau aurrean izan ez balitz, beste modu batera egingo ziran.

- “Bostak Bat” taldeko kideok iturri nagusitzat hartu eta erabili genduen gure hiztegi elebakarrak *Euskararako hiztegia* (30.000 ale inguru saldu ziran) eta *Europa hiztegia* egiterakoan. Geroago, 3000 hiztegia egin genduenean, ezinbesteko iturria izan genduan euskara-erdarako aldea prestatzerakoan. Azkueren hiztegia txiki geratzen zan eta Linok prestatutako hiztegi horretatik jaso genduzan euskararen historian zeharkako aberastasunak.
- Harrigarria da, era berean, hogeitau urte inguruko aldi horretan kaleratu izan ziran hainbat hiztegitan, lanerako hiztegi hau oso erabilia izan arren, iturrien zerrenda luzeak emoterakoan ez aitatzea. Egunen batean, norbaitek hogeigarren mendeko azken aldiko hiztegitantze buruzko tesiren bat egiten badau, bati baino gehiagori gorrituko jakoz lotsaz masailak.
- *Orotariko Euskal Hiztegia* deritzanean bere, bada ezpada edo, jaso egin dituen Lino Akesolok euskalki-alorrean eskaintzen dituen ohar zehatzak, bera izan dogulako azken mende honetan bizkaiera (batez ere) eta gainerako euskalkiak ondoen ezagutu dituenetako bat.

Ikerketa eta hiztegitantze arloko lan izugarri hori, gainera, orain eskura ditugun tresnen laguntza barik burutu eban. Gaur, baina, Interneten ez dagoenak ez dauka baliorik. Lan-tresna izatetik kanpo geratzen da. Horregaitik, beharbada, Lino Akesolori egin deikion omenaldirik ederrena, bere lanak digitalizatu eta saretik eskaintzea litzake. Hori, baina, bestelako kontua da, krisiak jota bizi garen une honetan.

4. Linoren euskara motari buruz zertxobait. Honetaz bere zerbait esan gura dot, ikertzaile izateaz gainera Aita Lino bizkaierako euskal idazle klasiko bat dogulako. Luis Arostegik hainbat gauza gogoratzen deuskuz Lino Akesoloren *IDAZKI GUZTIAK* liburuan. Nik hemen laburpentxo bat baino ez dot egingo:

- Euskalki askotan idatzi eban. Gehienez, gipuzkeraz (*Diario Vascon* eta *Jaunaren Deian*) eta bizkaieraz (*Karmel*, *Zer*, etabarretan). Baina gehienetan, zuzenketa txiki batzuk eginez ‘batua’ izango litzakeen euskararen. Bizkaiera klasikoaren aldeko apustua egin eban. Iparraldeko euskararen ere, badaukaz hitzaldi bat edo beste.
- Hasieran erabiltzen eban euskara gerra aurreko ohituren arabera da. Geroago ortografia batuagoa erabiltzen dau, eta klasikoengana hurreratzen dan euskara mota jasoagoa. Berba gutxitan esanda, euskara landuagoa.
- Euskara jantzia eta oso duina erabiltzen dau batez bere azken urteetan. Berbei dagokienez, esaterako, oso aberatsa da Aita Linok erabilitako euskara. Aditzari dagokionez Bizkaiko klasikoaren jarraitzaile agertzen jaku. *Adorez* sortako hiztegitantze ikerketa bat egin nebanean Linoren lana zehatz aztertu neban bizkaierari leku zabala egiteko, eta guztira 7.000 berba inguru erabili zituela ikusi.
- Gaiak oso zehatz aztertu arren, euskara ulergarria egiten dau. Ez da esaera luzeen aldekoa. Ondo jakiten eban ‘non’ ‘zelako’ euskara erabili; herritarrentzat zenean euskara erraza eta esaldi laburrez jantzia, bizia, atsegina (*Diario Vasco*-ko lanetan); Euskaltzaindiko ageriko bilera eta horrelako jardunaldietan euskara jasoagoa, gaurko euskara batutik oso hurrekoa.

M. Zaratek honela dino: «*Euskera zaarra ta erri-izkera ondo ezagutzen dauz, eta bizkaierazko idazlerik jatorrenetarikoa dogu berau*» (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, 248 orr.), eta K. Etxenagusiak: «*Erri-euskera aberatsa ta gure idazle zarrena gitxik ezagutzen dabe Bizkaian Aita Linok baizen ondo. Gipuzkera ere ainbat idatzi dau,*

baiña Obako fraide onen bizkaiereak berarizko gozotasuna ta berezkotasuna ditu ezaugarritzat. Iker-lanak, iztegia, kritika zorrotzak, itzulpenak t.a. eskeini deuskuz orain artean» (Euskal Idazleak Bizkaieraz, 252 orr.).

5. Euskara batua eta Lino Akesolo

- Euskara batua zala eta ez zala izandako eztabaidek kalte egin eutsoen. Une batean hartzen ziran erabaki batzuetan euskara batua euskalkien kaltetarako zala uste izanez, kritika gogor batzuk idatzi zituen. Bere ikuspegia ‘*Euskara batuaren billa*’ izenburua daraman lan luzean agertzen dau argien (*Kardaberaz*. 1977-6, 47-70). Arazoak mendez mende izandako ibilbidea argitzen saiatzen da.

Euskarazaintzakoek buru egin eta batuaren aurkako ikur modura erabili eben. Halan da bere, Euskaltzaindiko gramatika batzordeko kide izan zan, bertan lan eginez. *Karmel* karmeldarron aldizkarian, hainbat urtetan bizkaieraz idatzi ostean, batzuk euskara batuan idazten hasi ginanean ez zan ezer pasatu; ez genduan oztoporik izan. Aldizkarian euskara batuari zein euskalkiei leku orekatua egitea erabaki genduan, aukera idazlearen esku utziz.

Linok, eztabaida eta eretxi guztien gainetik euskara maite ebanez gizartean bizirik eta indartsu ikusi nahi eban. Horregaitik, eretxiak eretxi, batzuekin nahiz besteekin lanean jardun izan eban.

- “Bostak Bat” taldekook *Euskararako Hiztegia* definizioak euskara batuan zituala argitaratu genduan, ohar batzuk egin euskuzan arren, onartu egin eban bide hori. Hiztegia ugaritzeko zerrenda luze bat aurkeztu geuntzanean arretaz aztertu eta bere proposamenak egin euskuzan. Buru-belarri parte hartu eban bizkaierazko aditz batua erabakitzeko batzordean bere. Oso argia zanez, baekian irakaskuntzarako eta beste hainbat zereginetarako euskara estandar bat behar dogula. Bizkaierarako bere euskalki estandarra gura eban, klasikoetan oinarritua.

6. Euskara eta Biblia: ekitaldi honen amaieran *Salmoak* liburua oparitutako jatzen, bide batez esan gura deusuet arlo hau gehien eta sakonen aztertu dauan idazlea izan dogula Lino. Dionisio Amundarain jaunak horrela aitortzen dau argitaratu barri dauan lan eder batean. Lino izan dogu Joannes Leizarraga jaunaren lehen itzulpenetik hasi eta gaur arte euskaratu izan diren bibliaren itzulpenei buruzko daturik zehatzenak eskaini deuskuna (*Jaunaren Deian*).

Linok berak bere lan handia egin eban Biblia euskaratzen. Liturgian, eleizetan erabiltzeko testuak euskaratu zirenean, Bizkaiko batzordeko idazkaria zanez, buru-belarri ekin eutson lan horri.

Ekitaldi honetan, baina, zuen esku jartzen dogun Aita Linoren ‘*Salmoak*’ liburua aurkeztuz amaitu gura dot jardun hau, luzatzeko bidea hartu dau eta.

Lino Akesolok ‘Iratzederrek’ musika eta guzti kantatzeko argitaratutako ‘*Salmoak*’ liburua jarri eban bizkaieraz. Bizkaierazko testu hori kantatzeko ezarritako neurri estuetara egokitu behar izan eban. Eta egokitu bere, oso zehatz eta ederto egin ebala esan behar. Horretarako, zer esanik ez, euskara sakon jakiteaz gainera, salmo bakoitzak eskatzen eban musika erabili behar; hau da, esaldiak eta berbak neurrian ondo lotzeko aurretiaz buruz kantatuz egin behar lana!

Nik behin baino sarriago erabili izan dot, eta barruan eskaintzen dauan olerki-doinua gozatu. Aurretik egindako testu bat bizkaieraz jartzea izan arren, merezimendu handiko lana dogu, bizkaiera errazean eta kantatzeko arau zehatzei jarraituz egindako lana dugulako. Bide batez, salmo-liburuak ondo erabiltzeko, esan beharra dago ez dirala

hasieratik amaierara irakurgai modura eten barik irakurtzekoak, une egokietan erabiltzekoak baino.

Hori horrela, bertan salmoak kantatzeko olerki modura eskaintzen jakuzanez, liburu honek giro eta doinu bereziko mundura hurreratuko gaitu. Bizkaierazko bertsio honek, euskalkiz bizkaitar garenoi gure etxeko euskara atseginez gozatzeko aukera eskaintzen deusku.

Linoren jaiotzako urteurrena ospatzeko liburu honen argitalpena proposatu nebanean, gure herritarrei, batez ere bizkaitarrei, euskararen aberastasunak eta joko atseginak gozatzeko bidea eskaintzeko modu bat izango dala uste izanez egin neban. Horretarako aparteko aukera eskaini deusku mendeurreneko ospakizun honek.

Nire asmoa edo begirada, baina, zabalagoa zan. Egin-eginean ere, salmoek olerki-kutsu atseginez gizakioi, geure artean eta Jainkoarekin harremanetan, taldean nahiz bakarrean jarduteko eskaintzen deuskuen aukera ederra herritarren esku jartzea. Beraz, liburu txiki hau eskuratzen dozun horrek, fededun izan edo ez izan, gogoetarako bide izatea nahi neuke. Fededuna bazara, astiro irakurriz, edozein unetan otoitzaldiren bat egiteko lagungarri izango dozu.

Argitalpena egiterakoan, ostera, aurreko liburuaren hitzez-hitzezko kopia eskaintzea aukeratu genduan, idazkera eta gainerakoak zuzentzera joan ezker benetako jatortasuna galtzeko arriskua ikusi gendualako. Hori horrela, duda barik, harri bitxi bat eskuratzen dozu.

Patxi Uribarren Leturiaga